

PROZEDURAREN FASEAK

Kompetentzia profesionala ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedurak honako fase hauek ditu:

- 1.- Aholkularitza.
- 2.- Kompetentzia ebaluatzea.
- 3.- Kompetentzia egiaztatzea eta erregistratzea.

Lehenengo fasea: AHOLKULARITZA

Fase hori nahitaezkoa izango da. Aholkulariek lagunduko dute lan-esperientziaren eta/edo prestakuntzaren bidez eskuratutako kompetentzia profesionalak identifikatzen eta Ebaluazio Batzordeari aurkezten.

Aholkulariak hezkuntza-profesionalak, prestakuntza-profesionalak edo egiaztapenaren xede diren kompetentzia-ataletako adituak izango dira, prozeduran prestakuntza izango dute eta beren lana egiteko egiaztagiri ofizialak izango dituzte.

Aholkulariak bilera baterako zitazioa egingo die inskribatutako pertsoneri, posta elektronikoa bidalita edo egoki irizitako beste bide bat erabilita.

Aholkularitza-fasean, **elkarrizketa profesionala** egingo da aholkularitza-helburuekin, eta aurrez aurre egingo da.

Aholkulariak, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Ebaluazio Batzordeari zuzendutako txosten bat egingo du, eta orientagarria izango da. Txosten hori ez da loteslea; beraz, izangaiak ebaluazio-fasera igarotzea erabaki dezake.

Aholkulariak kompetentzia-ataletan egiaztatzeko aukeren berri emango dio, eta, hala nahi izanez gero, ebaluaziorako inskripzioa egingo dio.

Arrazoi justifikaturik gabe deitu dioten aholkularitza-siora agertu ez bada, edo harekin harremanetan jarri ezin bada, prozeduran jarraitzeko eskubidea galduko du.

Bigarren fasea: KONPETENTZIAREN EBALUAZIOA

Ebaluazio-fasean, izangaien kompetentzia profesionala egiaztatuko da, Kompetentzien dosierrean eta Aholkularitzaren txostenean aurkeztutako ebidentziak kontuan hartuta.

Ebaluazioa Aholkularitza-txostena eta izangaiak aurkeztutako dokumentazio guztia aztertuz egingo da, eta, hala badagokio, kompetentzia-ataletan eskatzen den kompetentzia profesionala ebaluatzeko beharrezko ebidentzia berriak bilduz.



Dosierren analisiaren eta balorazioaren emaitza honela baloratutako kompetentzia-ataletan zehaztuko da: **FROGATUAK, EZ FROGATUAK EDO ZALANTZAK.**

Ebaluazio Batzordeak beharrezkotzat jotzen badu ebidentzia gehiago biltzea, izangaiari jakinaraziko zaio, **Banakako Ebaluazio Planaren** bidez, zein kompetentzia-atal **ZALANTZA** moduan baloratu diren, eta horretarako kompetentzia-probak egitea proposatuko zaio.

Banakako Ebaluazio Planean, ebaluatzaileak honako hauek zehaztuko ditu: izangaiaren datuak, Ebaluazio Batzordearenak, probak egiteko kompetentzia-atalak, probak egiteko erabiliko diren bitartekoak eta aurreikusitako ebaluazio-metodoak: probaren behaketa, ahozko eta/edo idatzizko galderak, etab. Azken batean, izangaia izango da proba horietan parte hartu nahi duen ala ez erabakiko duena.

Hirugarren fasea: **KONPETENTZIA EGIAZTATZEA ETA ERREGISTRATZEA**

Ebaluazio-fasea gainditu ondoren, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak kompetentzia profesionala erakutsi den kompetentzia-atal bakoitzaren egiaztapena egingo du.

Izangaiak, prozesuaren amaieran, bere espazio pertsonaletik deskargatu ahal izango du IKASGUNEAn.

